Azalaren kodea

Miren Agur Meabe

poesia Susa

Liburu honen salneurria: 3 € + BEZ.
Ordainketa egiteko, edo liburu gehiago eskuratzeko:
http://susa-literatura.com/ebook

© 2000 Miren Agur Meabe
© edizio honena: Susa
cc-by-sa Creative Commons Aitortu Partekatu
http://creativecommons.org/licenses/by-sa/3.0/deed.eu

Lehen edizioa paperean: 2000ko maiatza
Edizio hau: 2011ko ekaina

Susa: 317 posta kutxa / 20800 Zarautz
Adoain Aita 92 / 31015 Iruñea
Zubitalde 21 / 48195 Larrabetzu
Telefonoa: 943 83 26 55
Elektroposta: susalit@armiarma.com
Webgunea: http://susa-literatura.com

Aitorrentzat

OHARRAK

Papera dudanez isiluneen antzeztoki,
orriaren ertzean aho malmutz bat ikusten dut
barreka.
Aldika, begitantzen zaidanean pentagrama
betegarria,
oharrak zirriborratzen ditut,
galdera-marka artean itotako gaztiguak,
ordularien kutxetatik hilerri batetik bezala
uluka dabiltzan dei txakurtuak,
leihoetan bet-betan agerturiko mezuak,
sentiera arrunta esplikatzeko definizio-saioak,
off ahotsak...
ohar orokorrak.

MEMORIA EZ GALTZEKO OHARRAK – 1

Ezin zaitzaket giltzapetu,
txolarrez eta eroz beteriko kalea zarelako.
Ezin zaitzaket ordenatu,
umeltasun lizunezko trumila zarelako.
Ezin zaitzaket harrapatu,
paturik gabeko zaldiaren galopa zarelako.
Ezin zaitzaket maitatu,
gogo oneko jendearen beldurren zakua zarelako.
Ezin zaitzaket pentsatu,
lo-gabezian ernai naukan ideia burugabea zarelako.
Ezagut zaitzaket, ordea:
neu lakoa zara, beste azal batekin.

MEMORIA EZ GALTZEKO OHARRAK – 2

Zabalik utzi nuen bart logelako leihoa
eta piztia bat sartu zen.
Aireari usnaka zebilen:
uste dut igarri ninduela izara artean kuzkurtuta.
Ez zekien biluzik nengoena, bere zain,
ezta bere izena nekienik ere.
Animalia ugaztuna zen,
burusoildua,
bularrean bilo gutxikoa,
ipurdi irtenekoa,
begiak kilometroz eta loguraz beterik
eta tabako, kresal eta ogitarteko hotzen nahastea
ahoan.

Adurra erori zitzaion alfonbra gainera,
eta infernuko itsasoen moduan
hasi zen zorua txinpartaka.
Alboetara behatu zuen,
eta lokatzezko hilobi baten moduan
desitxuratu ziren hormak.

Bizkarrean egin zuen hazka,
eta nire bularrak puztu egin ziren
mundua udaberrian ohi den legez.

Egia diot.

MEMORIA EZ GALTZEKO OHARRAK - 3

Euria ari zuen nire klitori gainean.
Tximistak lir-lar zetozkizun paparrera:
odoletan zeundela zirudien.
Baina itzalak ziren,
azalaren lautadara etzatera etorriak.
Zure sexuak kearen usaina zuen,
nabarra eta zaharra.
Aldiz, ni urdina omen nintzen
eta oxigenoa lapurtu zenidan
neure zulo arrosetatik.
Zure hatz marroiak nire baginan,
udagoieneko adar zurrunak.
Paperezko zapia atera zenuen, ez dakit nondik,
eta autoaren leihatilatik bota zenuen,
umel eta zimur.
Bularrak lehertu guran nituen.
Euria ari zuen nire klitori gainean.

MEMORIA EZ GALTZEKO OHARRAK - 4

Nire maitaleak ikusi nituen desfilatzen,
burumakur nire gorputzaren aterantz.
Bazihoazen urrats geldoz erre-oparirako bidean.
Hor ziren nire maitaleak,
geriza bozatuak ezinaren oihu builatsua irentsita.

Neu nintzen aldare-harria,
bildotsa,
sastakaia
eta besoa;
haiek, orkatiletatik narras zeramatzaten
aingura-zatiak,
paisaje-pusketak,
poema-birrinak,
kalimotxo-zipriztinak.
Agur egin nien eskuaz eta begiak bildu nituen:
gatza neukan betazaletan.

Gero giltzak jaurti nituen urrunera,
haragizko tenplu goibelaren baitara.

MEMORIA EZ GALTZEKO OHARRAK - 5

Zurekin egin nuen amets
eta ibai epel batek kilimak egin zizkion etxeari.
Mamu-lana zenuen,
nire aurpegi gainera arnasa hartzera etorrita:
lotan soilik ikus zintzakedan.
Ametsetan egin nuen zurekin
eta emakume biluziak zeneuzkan inguruan,
makurtu eta altxatzen
eta muin egiten
bizkarrean, sexuan, eskuetan, besapeetan.
Irribarreka zeunden zu, denak maite baitzenituen.

Hain aspaldian ez dute gure begiek elkar ukitu
ezen nitaz oroituta, ametsetara baitzatozkit,
eta orduan
irristaka galduz doan harea bilakatzen natzaizu
loaren beroan.

ANTSIEN OHARRAK - 1

Desioaren protozooa esperantzaren urlo berdean bizi da.
Protozooaren desioa esperantzaren urlo berdean bizi da.
Urlo berdeko protozooa desioaren esperantzan bizi da.
Protozooaren esperantza desioaren urlo berdean bizi da.
Urlo berdeko protozooa esperantzaren desioan bizi da.
Esperantzaren protozooa desioaren urlo berdean bizi da.

ANTSIEN OHARRAK – 2

Haragiak eta haragiak daude.
Nik haragi berri batekin egiten dut amets.
Haragi horren atomoek elkar maite dute
ez dutelako ezagutzen
ez jogurt desnatatuen iragarkirik
ezta jantzi-dendetako tailen koderik ere.
Haragi horretako zeluletara ez da sekula iritsi
konparazio hitzaren oihartzunik.
Haragi horrek onetsi egiten ditu bere pitzadurak,
fetuen bolumenak utzitako labirintoak,
gernuaren erantzun anonimoak,
koipe-soberakinak.
Haragi horretan ez dago birus maltzurrik sorgor,
ez baita sentikorra ispiluekiko.
Eta bikain burutuko lituzke sintesi-erreakzioak
nire burmuinaren eta hezur-mami-azalen artean.

ANTSIEN OHARRAK - 3

Bular-mahatsak bustirik dauzkat.
Zeuk milikatu dizkidazu, kiribilka, kurubilka.
Nire bular-sagarrek ernamuinak dirudite:
erronka egiten diote aireari apurtu baino lehen.
Hozkaturik ditut bular-gereziak:
urrezko sustrai bat errotu didazu sabelean.

ANTSIEN OHARRAK - 4

Nabarra da zure arnasa goizean goizeko orduetan,
zeru-sabaiaren golkoa zimurtzen hasten denean.
Beltza da zure azala,
sumendi tristeen gogoa bezalatsu.
Arre ikusten zaitut,
graffiti ezaguna izaren artean.

Besarka nazazu eta,
ilun horrek,
esadazu ahots marrantatsuz:
egun on, maite zaitut.

ANTSIEN OHARRAK - 5

Heriotza jostatiak dado-jokoan dihardu
aingeruekin bidegurutzeetan.
Katu sarnaztoak ditu lagun, sos-zenbatzaile.
Sosak... gure arimaren alde ikuskorra:
gorputz suntsikorra.

Heriotza biziotsua gure ohean etzaten da
amodiozko hitzen tximeleta-marruma bila.
Hotz-hotzean hilko dute gure arma bakanek.
Armak... oraina betierean berrituz:
gorputzak, gorputz.

AKIDURAZKO OHARRAK - 1

Azalaren sarean haritxo alai bat prestu.
Harizuntz gordina,
kirioz kordaturiko idunekoa bezain mehea.
Harizuntz apaina,
itsuen barrea bezain garestia.
Eten egin da.

Orain ezin ezerk josi
albainu hark memoriaren azalean
bordaturiko tarratadak.
Egon ez orratzik
ezarian zirtzilaturiko bilbe hori hartzekorik.

Harizuntz gordina,
harizuntz apaina,
bitan zatituriko
biru ederra.

AKIDURAZKO OHARRAK - 2

Laztan bat eskatzen baldin badizut huntzorriaz
oroitu.
Goranzko bidean harrapatzen du beti egarriak.
Ezune larrienean ere zutik aurkitzen du,
horma ezagunari atxikia.

Neu ere, halaxe nago, oraka zure ferekari,
tente, huntzorri mehetua,
maite-ur egarriz ala ukoaren itoguraz naizenentz
argitu ezinik.

AKIDURAZKO OHARRAK - 3

Mingotsak dira zure haserrearen garangorriak.
Barruetan daukat beren zuku urri latza.
Herrestaka doa aldapan ene patari-bihotza.

Paisaje kiskali horretan
aurkitu ditut soberan destaina eta zigorra.
Zatoz, ibili zeu ere nirekin
eta bilatu mezuak harri-kiskirrietan.
Nire keinuak hor, agerian:
atera didazun begia,
moztu didazun mihia,
erre didazun eskua.

Ea goiztu orduko iristerik dugun
eremu antzu hori mugatzen duen
barkamenaren lubakira.

AKIDURAZKO OHARRAK - 4

Ez zaude.
Horregatik desegin dira gure kontu haiek guztiak.
Burbuilazko arrosario baten antzean egin dute
eztanda
punp eta punp
hala etxean bezatutako irrikek
nola kalean kuxkuxeaturiko promesek.
Dena lehertu denean,
aparra jausi da inguruetara,
ahotsak erori dira ortzi maspilduetatik nire gainera,
matxinatu egin dira espaloi hutsak
eta oinak jan dizkidate.

Ez naiz besaulkitik higitu ere egin,
papera eta boligrafoa hartzeko izan ezik.
Gau osoa eman dut
munstroak marraztu eta marraztu.
Goizaldean, kamamila-egoskia prestatu,
dutxa hotza hartu eta
langostinoak erosi ditut supermerkatuan,
itzuliko zaren ala ez jakiteke.

AKIDURAZKO OHARRAK - 5

Amodio-lorearen hostoak
ez ditut ikusi gura
erortzen
porrotaren aintzira izoztuaren azalera,
lilura galduen orbel debaldekoaren artera.

OHAR LABURRAK – 1

Atzo izara bat erre zitzaidan.
Erre egin nuen lisaburdinaz.
Ogi xigortuaren koloreko triangelua estanpatu nion telebistaren erruz.
Beti izaten dut piztuta sukaldeko telebista txikia
arropa lisatu behar dudanean:
gerrako haurtxo beltz bat
ama hilaren titia miazkatzen ari zen.
Ilezko korapiloa egin zitzaidan eztarrian.

Ez zait ahaztuko,
esneak sujetadorea umeldu zidan eta.

OHAR LABURRAK - 2

Gaur ez dut bainugela garbitu,
ez naiz erosketetara joan,
arroparik ez dut zabaldu,
umea ere ez dut eskolara eraman.

Bakarrik nago eta prest
armaren katua zapaldu eta tiro egiteko.
Tiro egiteko irudimenaren harresiari
ireki dadin eta, pirritan,
etor daitezen pasa-hitz aproposak lerrootaraino.

Nekez, baina txolarreak ikusi ditut
beren buruak tximistorratzetan iltzatzen,
eta basurdeak beherantz adi espaloien irriei adi,
botila hautsiak, sasiak sutan, jendea korrika.
Dinosauro likatsuak baizik ez dira irten osinetatik.

Gaur ez naiz zizka-mizkan ibili hozkailuan,
anbulatorioko errezetez oroitu ere naiz egin,
telebistarik ez dut piztu,
pilulak non gorde nituen ez dakit.

OHAR LABURRAK - 3

Hiria handia da.
Haurtxoen gainera abaildutako itzalak
bezainbestekoa.
Hausterrea dirudi pobreen azalak
kale-zokoetan kokoriko daudenean.
Hormatxoriak dituzte jagole
parkeko estatuen sorbaldetatik.

Hiria handiegia da.
Txatarrazko itsaso bat, talka eta talka,
gure miseriaren ziliportak aireratzen.
Zabortegiak bailiran badoaz eskaleak,
zigarrokinak aldean, kantoietako habietarantz.
Koipezko uharak geratu dira bidean.

OHAR LABURRAK - 4

Badatoz berunezko arratsa eta bisutsa
lurzoru lauburuz betea harrotzera.
Aita alargunak harrilobiari fereka.

Lo mantsoan dago semea,
eskuak bata bestearen gainean,
bapo-bapo ase metalez, euri-zaparrada hil-mihise.

Eta tantek —herio-biolinaren nota larriek—
beste batzuen argazkiak jango dituzte gupidagabe,
kolorea xurgatuko diete, ia benetan odolustu arte.

OHAR LABURRAK - 5

Bekokian grabaturik ditut
ihiak, anemonak, txontak, kurkuilu esnatuak,
izpilikua, potin berde bat, gereziak
eta elur urtua etxe berriak egiten.
Zurrumurru biribilez mukuru jarri zaizkit besoak
errepide ondoko murruan.

Berandu da. Banoa.
Bulegora sartzeko ordua dut,
eta hor barruan ez dago leihorik.

ORBAINAK

Nire aseezinaren euli mizkina
nire zorigaitzaren sega pinpirina
nire amorruaren torratxori-ezpata
nire bekaizkeriaren sasisorkinak
nire porroten urlia, sandia eta berendia
nire indarraren beso lurperatua
nire kaxkarkerien linbo-lurrina
nire haragikerien adur sobrakoa
nire erorialdien kale barretiak
nire tristuraren katezismo galdua
nire errakuntzen purgatorio ukatua
nire damuen sutauts amaigea,
nire sekretuen ortografia faltsua...

Azalaren gozaroa itzulia izan dakigunean
ospatuko ditugu
zeure oroiz eta zeure faltaz igarotako gau-egunak
—marrubirik gabeko uden antzean alde egindako
zuri-beltz arrotz eta luzeak—,
xahutuko ditugu
laztanaren kopa eta amodioaren azpila
—zeu aldamenerako hartu arte gorderiko
ttua eta haragia—,
usotuko dira esku biluziok zure haizetzan,
eguzkituko begi ilunberok zure garretan,
zaldituko arnasa huts hau zure abiadan.
Itsasoak ekar zaitzanean,
atarietan zain izango natzaizu egun-usainetik,
ni, sinesgabea izanik,
zure gabeziak bedeinkatu ninduelako
eta itxaronaldiak zidalako irakatsi maitasun-kredoa.

Zubi zaharretatik ibilia naiz,
harri umelezko mailadietan zehar,
kanpandorre huntzorriak gogaituetan barru,
arrastiriak moreturiko arkupeetan aurrera;
arrainen herio-begiek ikusi naute,
soroetako txakurrek susmatu bidezidorrean,
baselizetako ur-ponteek islatu,
baita potin margulduen arraunek ere, abantean;
bide-ertzeko marrubiz leundu dut nire lehortea,
azaleko hauts penatua haizatu
atea jotako etxaguntzetan,
bekokiko izerdia balakatu
zenbaiten besartean goizaldera arte gozo jostatuz.
Edari usaintsuak eskaini dizkidate, mahai oparoak;
ekaitzaren mokoak burua makurrarazi dit askotan.
Eta inon ageri ez zelarik zure oinaren aztarna,
bat-batean ostatu hartu zuen nire erromes-arimak:
zure gorputza eraiki zitzaion etxerik zabalena.
Noraeza amaitu zen: eman nion zure izena.

Bildu nire igitai-ilargi izoztuaren jario zurbila,
nire platinozko sexuaren lurrin azukretua.
Oratu nire gerri suminduaren bihurgune ahazkorra.
Biribildu nire bular iraunkorraren obalo goibela,
zure aho-errotarriaz eho bularmutur mingotsa.
Txoriarrainek albokera erortzen ikus gaitzaten arte,
zure txistu-haziak nire ezpainetan haize bihurtu
artio.

Denboraren ur joan-etorrietan
doluaren harria labaindu zitzaidan.
Barrearen errota lizunduan
atsekabea eho nuen doi-doi.
Euriaren gezi lañoetan
damuaren tronua zarpaildu zen aise.
Hitzaren kanoi zaurierrazetan
gupidaren epitetoak mututu.
Txorimaloen zoko-mokoetan
zorionaren zinak gorde nituen.
Berpiztu egin nintzen...
krisalida baten misterioan.

Ez dut sekula urratu nostalgiaren himena,
beste amodio hura gardenarazten duen
oroimen gozozko mintza.
Ez dut inoiz lardaskatu iragana,
bere baitan bizi litekeen
erresuma bakarraren bolumena.
Ez dut behin ere amildu musu agur-letanian bustirik
ahazmenaren aho ilunera.
Ez dut egundo bizi-altxorrean merkatu
haren negar uherraren urrea.
Ez dut egundaino bere oinazea
gorroto-zaldiaren apatx pean lehertzen laga.
Ez zait oraindik damurik arimaratu.
Ez zait, tamalez, lotsarik aurpegiratu
inork ere ezin baitu ahapez ere salatu
olerki honetako gezur-aitortza bakoitza.

Erdu.
Gerturatuko bazina
jostati, kilimusika dabilkizun nire giharren uztarrira,
baietz arin hezi zure larruaren uhalak
hain luze atzenduriko nire pasio-urruma ubela.
Eta hurbilduz gero
itsaso xahutuzko begiotara,
baietz zure adikuneak askatu desioaren
gudaontziak,
bat-batean gizondutako haurrak bailiran.
Edo hurreratu nahiko bazenu
masusta-aho honetara,
baietz zure musuek garbitu ezpainotako kittoak,
eta nik berehala ahaztu: zorkoa, hartua.
Hona azalean borborka itxaron izana.
Loraila loretan bezain merke opatzen natzaizu.
Erdu, eta egin beharrekoa, laster egizu.

Egun batzuetan
herensuge bat irristatzen zait zainetara
zikutazko kerruak muinetara jaurtitzen,
gorrotozko simaurrez barruak ontzen dizkidana.
Ez dut ezpatarik, ez dut lorigarik,
ez dut besorik nire burua jagoteko.
Berak, garaipena:
bere lerdea nire gogoan barraskilotzea.
Berak, taktika:
kea ateratzea nire ongura-horniei.
Berak, gonbitea:
sutarako deia eta behazun-zurrutada bat.
Zor-betetze orduan,
bere eskupera, ni, bere aginterri.
Nire ondasunak,
ausikika zikiraturiko borondateak oro.
Bekaitz da ozta-oztako haren narrasti-izena.
Bekaitz da nire jaun eta jabea.

Izurdeen dantza edota limoien lurrina ipar
haizetzan
zeuretzen duzun legez,
hitz totelok ere asmatzen dizkidazu
lehenagoko gure amodioak lanbropean gaurkotzean.
Nire irribarrea erraz dator
euriaren bits urdinak kosta gardentzen duen
egunetan.
Terrala firi-firi dabil etxeko leihoetan.

Urrundu zinen nigandik, urrundu zinen
baina beste batzuen gorputzean neurea zara
oraindik.

Eskuetako marretan laburbildurik dakarzun bidaian,
isiltzen dudan guztiaren karta geografiko
purpuretan
keinuka dugu antsien durundia,
betilore terrible baten mehatxua eta eztanda.
Nik zuri txera egitea ez da zaila
laino keantzak isla tristea blaitzen duen egunetan.
Hormabelar apala tantaka dago teilartean.

Urrundu zinen nigandik, urrundu zinen baina beste batzuen gorputzean neurea zara oraindik.

Kristalezko emakume izan nahirik
kale hustuak ibiltzen ditut gauero biluzik.
Ilargi eri bat bezain garden dut azala
eta beldurtu egiten dira txakurrak nire soadaz.
Uhuri egin orduko lotsarazten ditu
burmuinean daramadan galderaren usainak.
Eta loak hartzen ditu nire oin ausartak,
papiloien hauts hilurrenekoaz estaltzen.
Eta ez nabil inorantz
zorabioak hartzen bainau besoetan.
Eta amets zahar baten antzekoa naiz,
nigan besterik ez naiz bizi.
Gauak hautatu nau bere zitori,
baietz esanda esnetan mela egindako lepo-bularroi.
Kristalezko emakume izan nahi dut
maite nautenek ikus ez nazaten
eta odolaren ordaina eskain diezadan
nire emea zapaldu eta hautsi dezanak.

KONTRAZEINUAK

Bete iezadazu bihotza zure kaligrafiaz.
Hantxe jardun zerbait piztu arte.

Eta piztutakoan, araka nazazu,
ea letrarik dudan azalean:
esku-izkribu baliosa naiz,
kezko tatuajez betea.

MUNSTROA

Munstro horrek ba ei daki gure helbidea.
Alabaina, oraindino ez da etorri geratzeko.
Sarritan sentitzen dut txilioka, gure etxetik ez urrun.
Beste kontu batzuekin denbora-pasa dabilela,
errezel osteetan jarrita egoten naiz ni zain
Optimism perfumearen hiruzpalau tantaz
iduna igurtzita.
Tarteka, paper-boligrafoak hartzen ditut;
tarteka, lanbrozko otzarak txirikordatzen ditut.
Munstroa luzamendutan dabil, gerturatu, ez gerturatu.
Izaki malapartatu horrek etorkizun du izena.
Nik hustasun deritzot.

METAMORFOSIA

Narrastiak daude zure berben ostean,
zizt eginaz batera ezkutatzen dakiten sugeak.
Zu zeu oso-osorik bihurtzen zara ofidio zantar
eraso egitera oldartzen zarenean:
txinpart horiak nini hanpatuetan,
sugar moreak hobi izoztuetan,
pozoi beltza letagin zorrotzetan.
Sexua ere mizto gorri zaizu bihurtzen.
Amorruz kiribiltzen zatzaizkio nire isilaren
koldarrari,
mespretxuz zipriztindu gura duzu nire egote mutua.

Lasai, maitea.
Ez nauzu irentsiko.
Lasai, laztana.
Gehien ere, borrokan galduriko ezkata zurrun
apurrak
geratuko dira airean sakabanaturik,
dirdai-dirdai bion hizketan.

MARMOKAK

Marmokek behetik gora egiten dute dantzan
tristuraren sakonera abisalean
automata aihergen trebeziaz: meritu-txintik gabe.
Marmokak ditut burutazio,
urpe urrunetatik
ostarkuaren luxuaz jalgitzen baitira azaleraino.

Utziko nizuke, oroigarri,
nire marmoka-pentsamenduen zartada:
koloretako hotzikara eta azkura luzea.

DIAGNOSTIKOA

Eritasun hau degeneratiboa da.
Gorputzeko ehun komunikatiboak suntsitzean datza:
azala uzkurtzean
(ferekekiko sentikortasuna galduz),
ikus-fokua murriztean
(irakurgai dugun liburuaren esparrura mugatuz).
Mintzatzea ere neketsua zaigu
eta berba bat ahoskatzen dugunero,
pseudopodo gris luzez hornituta jaiotzen da
eta egongelan zintzilik geratzen,
bere patua horixe bailitzan:
oherako orduaz ezer ez dakien ameba bakana
izatea.
Belarria kalteturik, gotorlekuan gaude, gor.
Dasta-papilak eta mihia elbarriturik, nagi.
Sudurzuloak antena bilakatu,
eta segituan hautematen dugu
kexu baten erre-sunda edo erdeinuaren enpagu-
hatsa.

Diagnostikoa:
isiltasun-minbizi ziklikoa.
Inkubazioaldia:
eroapena praktikatzeke pilaturiko aldikadak.
Maiztasuna (barkamenaren zientziak soluziorik deskubritu ezean):
elkarren ondoan poto egin bezainbeste bider.
Profilaxi-tratamendua:
afari bat jatetxe polit batean, noizean behin,
eta goizero-goizero
pentsamendu alairen bat egun on esatean.

GALDEKETA

Non daude pozaldi horailetatik
batzeko ginen taupada hordigarri haiek?
Non, belaontzien ezpalez
eraikitzekotan ginen sutondo ibiltaria?
Non dago tigreen marrekin
dekoratu nahi genuen aberri berria?
Non, iraganaren magalari atximurka eginez
berretsi gura genituen gure paisajeak?
Non da lehen ohe hartako erloju ezberdina?
Non galdu dugu misterioaren ura,
zeinahi utopia bedeinkatzeko balio ziguna?
Non gorde duzu irudimenaren maleta?
Zer dago orain barruan?

SIMONIA

Benetako magia erosiko nuke, balego:
“Urrun ezazu nigandik edari samin hau;
baina egin bedi zure nahia, ez nirea”.

Zerutik erantzuten didazu
filmetan bezala, ben-ben,
nire arazoa neurea dela
eta uste on osoa duzula nigan.

Izuz beteriko edontzi finak ditugu galderak.
Hobe edatera ez hurbildu
ezpain apurtuetatik
erantzunek
ihes egiterik
nahi ez badugu,
ardoaren koloreko odolezko haritan.

Inoren zauriak miatzen ditugu
katuek zaborrontziak bezala,
itxaropena galdu gabe:
egun hasi berriak
ez dakarkigu espero genuen abisua.

Eguraldiari buruz egin dezakegu berba, hala nahi baduzu, umearen eskola-txostenaz eta pediatraren gomendioez, erosketez, bankuko agiriez, bizimoduaren mekanika aldarazi digun telebista hondatu berriaz, auzokoen hurrengo bileraz, tabakoaren prezioaren gainean, irakurtzen ari zaren artikuluaz, udako oporrei buruz, zure lankide apo horretaz eta gainerako lankide ondraduez ere, zure depresio antzeko infekzioaz. Eta berba egin ahala, ikusi nola doakidan askatzen ariman nekarren kremailera. Ikusi zein naro isurtzen zaidan izter artetik Esne-Bidea.

Isilik geunden.
Zer edo zer itxaroten.
Etorri ziren urtaroak, bata bestearen ondotik,
saskietan mertxikak eta soinekoetan elur-malutak.
Etorri ziren arbolak, liburuak, seme-alabak.
Etorri zen heriotza ere,
ahoa iltzez beterik,
eta artean legez iraun genuen
ez genuelako ikasi ahal izan
miraririk gabe bizitzen.

Zugana jo nuen
teink egiten zenidalako sokak txakurrari legez.
Niri zuzendu barik esan zenituen berbak
niretzat hartu nituen nik,
gure artean iratxo ipuin-kontalari bat bailegoen,
botikak banatzen edota psikoanalisia egiten.

Alferrik.
Zure pentsamendua ez zen nirea leitzera inguratu.

Basalarrosek miazkatu dute
baselizaren zurezko arkupea.
Hantxe, harrizko murruaren kontra
amodioa antzeztu genuen aspaldiko arrasti hartan.
Euriak zelaiari erauzten zion busti-hotsa
zeure hatzek atera zioten nire sexuari.
Armiarma-sarean zehar ostadarra ikusten nuen
zuk bultza eta bultza
ezerezaren kontra egiten zenidan bitartean.
Gero, trinki-tranka aldendu ginen errepidean
aurrera
gorputzei bihozminaren salda epela zeriela.
Huraxe izan zen atzen enkontruetako bat,
gure azal umelak ordurako bazekielarik
elkarrentzat ez ginela.

Arraroaren oroizale naizelako gogoratzen ditut
zure botak eta hebilla handiko gerrikoa,
zure sudurra eta ironia.

Azaroan
haize gordinak batuko gaitu
jakin-minaren kapa sanoan.
Zure karrikako potxingoak zapalduko ditut.
Ez dut kanutorik erreko
baina lurrunez beteko dizut aurpegia kaixo esatean
eta gero arrapataka alde eginen dut balizkotik ihesi.
Gona motz eta arrakada luzeekin ikusiko nauzu
azaroan.

Kontua da berriz ere entzun gura dizudala,
xuxurlaka, akaso:
“Zer, Miren Agur”.
Eta zirrara hutsal horretan ediren
andre gazte xarmanta sentitzeko beste aitzakia bat.

Amoniako-zaporea dastatu nahi ez eta
ahoa erretiratzen dut zure sabelpeko itsasgoratik.
Eldarnioaren zurrunbiloan uzten zaitut,
nire gorputzaren ohol blaituei lotuta.

Laster, olatu bi hasiko dira nahas-mahasean korrika:
batak zure izena dakar apar gainean;
besteak neurea, apar azpian.

Ni, barrurantz begira eta
barrurantz berbetan.

Zu, nire sabelean,
belarria ipinita eta lo aldi berean,
nire izena ikasten.

Hontza oheburura etorri eta basoa ekarri zizun,
ipurtargiz eta iturri magikoz betea.
Usoa gosaria eta goizeko lehen hitzak partitzera
hurbildu zitzaizun sukaldeko leiho-erpinera.
Salara, zikoina mokofina,
fardeltxoan xirula eta kriskitinak.
Eta komunean arrano erpeluzea izan zenuen
zaindari,
pixa zeure kontura egiten ikasi zenuen arte.
Eskolako brusatik galdutako botoitxo urdina
kurriloek hartu zuten irrist-gurpila egiteko.

Ez da basoilarrik kantuan egin ez dizunik,
ezta usapalik ere zugatik negar egin ez duenik.

Zure ointxoek lurrean utzitako sakonuneetan
egiten dituzte habiak
ilargiraino aita eta ama eramango dituzten antzarek.

Elkar ezagutu genuenean,
tapoia erori zitzaion bizitzaren tintontziari.
Desirazko kordoi bat jaio zitzaigun azaletik azalera
eta ibiltzeari ekin genion,
noiz bata bestearen ondoan, martxan,
noiz unibertsoan biraka, alderantzikaturik,
noiz aurrez aurre, geldi ere geldi.
Horretara izkiriatzen dugu, biok,
gure geure urrats soilekin,
liburu luze bat,
liburu orijinal bat
akatsez eta azertuz betea.

KONTRAZEINUAK

Pittin-pittinka eratu zitzaidan
harako morse hura erraietan.
Ikarak hartuta nengoen
zentzunaren ortopedia aski izango ez ote zen
erregistro berri hark irekitako zirrikituan
protesia jartzeko.

Gero hegoak jaio zitzaizkion nire azalari.
Min eman zidan abiadurak
baina tekleo liliput batek alegeratzen nau aldi oro.

HIRU GURARIAK

Haizeak oroitzapen bat dakarkit.
Orduko haizekirri berbera da,
nire arimak arrokak legez diz-diz egiten zuenekoa.
Hamasei urte nituen eta hiru gurari:
mozoloaren burua,
oreinaren bihotza,
panteraren sexua.

Haizeak, hogei urteren buruan,
Bizitzaren Arbolari daragio.
Orpoan dauzkan igali umoei adi nagokie,
nola darien denboraren ironia,
nola doazen hirotuz, ahalke,
bere burua Ni Neu Naiz izenaz birbataiatu zuen
neskato haren orainaz txundituta.

AINGERUA

Ate faltsuak dira, txartel faltsuz seinalatuak.
Guztietan jartzen du Irteera,
eta irekitzen ditudanean,
kulunka egiten dute kirrin-karran, kirrin-karran
herdoilaren eta denbora metatuaren musikatxoaz.
Haatik, sekula ere ez naiz ateratzen kanpora.
Ate baten ostean, beste bat baitago, eta beste bat,
eta gero beste bat...
Alboetara so egin gabe egiten dut aurrera eta
aurrera,
erantzun zuzena,
jarrera orekatua,
aholku egokia,
jakituria uneorokoa
ikasteko esperantzaz.

Azkenean aingeru bat agertzen zait ametsetan,
esanez:
“Okerreko bidetik zoaz.
Atzera egin behar duzu,
Areto Nagusia jartzen duen tokira.

Zure zeure baitaren erdigunean daukazu.
Hortxe soilik aurkituko duzu, agian,
horrenbesteko grinaz desio duzuna”.

GAUZA KONKRETUAK

Sukaldean jarrita nago, makarroiak egosi bitartean.

Gauza konkretuak maite ditut
eta horien izenak errepasatzea gosaldu baino lehen:
iratzargailua, euria kalean, supermerkatua,
musuak siestan,
ardo bat, koadrila,
semearen esku ttipiak,
jendea plazan,
zu...

Kilima gozo-gozoak egiten dizkidate,
dieta ostean oturuntzak egiten dituenaren
antzekoak.
Ezinezkoa zait eguneroko gauza horietatik
aldentzea:
boligrafoetara itsatsi zaizkit eta ez dakit astintzen.

Dena den,
gauza konkretuek ez dute luzapenik onartzen:
makarroiak egosita daude dagoeneko.

Bizimodua honelakoxea da.
Poema baten germena hozitzen hasten denerako,
badator egunerokotasuna sakaka.
Eta mahaitik jaiki beharra,
ernegu lirdingatsu baten menpe.

ERRADIOGRAFIA

Izar uxoak alde batean.
Ikatz-trokoak bestean.
Horixe da buruaren erradiografian aurkitu didatena:
bai-pilo bat eta ez-mordo bat ea zeinek zeini tokia
ostu
burezurraren tokian dudan erabakien kutxan.

Oraingo honetan *ez* hitzak irabazi du:
“Ez, ezin duzu geratu.
Ez, ez dizut konfiantza berriztatuko”.

Neure aho-sabaiaren basamortuan arrastaka noa,
kateatuta baitaukat berba hori orkatiletan,
senide atzeratu baten antzean.

MITOMANIA

Mito larregi zegoen burutxo honetan.
Egunero sortzen zen idolo berriren bat.
Behinola, atezainak utzi egin zidan
jainkotxo baten etxean kuxkux egiten,
autograforik ez eskatzeko baldintzarekin.
Festa bat ospatzen ari ziren:
karramarroak sugandilekin ligatzen,
loroak arranoei hegan nola egin irakasten;
apaburu ipurterre pare bat, antiojoak ipinita,
beren azken liburuari buruzko esplikazioetan;
tximino bat zokondo batean, bekozko,
gonbidatu guztiek euskaraz ez zekitelako.
Hura istant gogoangarria!
Karnabal hari esker,
etxera heldutakoan ispiluan ikusi nuen kameleoiari
piztia haiek guztiak bezain zuhur eta zintzo iritzi
nion.

ABEGI ONA

Nortasun-agiririk gabe jo nuen egoitza hartako
atea,
zubipean lo egitetik esnatzean.
Ura neukan poltsikoetan,
zenbait itsas zorri itota ileetan.

Atea zabaldu zuenak galdetu zidan:
“Ba al dakizu nora etorri zaren, seguru?”.
Besoak uztartu nituen; ez nion erantzun.
Karramarro ttiki bat atera zitzaidan
naufrago-ahotik, ustekabean.
“Sartu orduan”, agindu zidan.

Pausoa eman eta bat,
arruntasunak jo zidan muturrekoa
eta, zorionaren zorionez,
pixa egin nuen aldean.

Nire kumeak balantza batean olgatzen dira.
Beren barre-negarrak entzun ohi ditut,
oraindino jaio ez badira ere.
Bata arra da eta emea bestea,
nire kumeak.

Ponpaketa-lana burutzen dute
beren alegiazko zainetatik nire zainetaraino.
Arnas katean tartekatzen zaizkit
errefus-erreakzioen esperoan.

Ahotzarra irekitzen dut,
irentsi egiten dut neure burua,
digeritu, orro eta korrokada artean,
azkenik beste behin ere sortzen naizen arte.

Autofagian espezializaturiko prozesua da
ama izatea,
ama izatea,
ama izatea...

Egunen batean esanen dut:
“Lehen bihotzeko gorabeherei kantatzen nien,
baina gogait eragin zidaten.
Orain gurago dut onddoen hazkuntza behatzea”.

Eta koadernoa aho-zabalik geratuko zait,
eta ez du jakingo zer egin, negar ala barre.

Entzunda neukan zirkulua zela maitasuna:
eraztun burutu egonkor alfa eta omegarik gabea.
Baina nik uste dut maitasuna kubo bat dela,
espazioan zintzilikatua,
higidura helikoidala duela eta
ez duela onartzen inolako mugatze-deskribapenik.
Kuboaren aurpegietako bakoitza
aldagarria eta metamorfikoa baita,
eta ez du izenik, eta ez du izaerarik.

KODEA

Bestelako kodea aldarrikatu nahi dut:
hitzarena ez bezalako kodea,
hizkera ez-hitzezkoa,
oroimenean kondenatu ezineko lengoaia,
zinak gezurta ditzakeen berbakera,
erreklamazio-libururik eta
tarifa-zerrendarik gabeko mintzo mutua,
mezu anbiguoz itxuraturiko jario askea,
adierazi gura ez denaren adierazpidea.